

SESSION 2025

**CAPES
CONCOURS EXTERNE
ET CAFEP**

SECTION : LANGUES RÉGIONALES

BASQUE

**EPREUVE ECRITE DISCIPLINAIRE APPLIQUEE PORTANT SUR
LE BASQUE**

Durée : 6 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Il appartient au candidat de vérifier qu'il a reçu un sujet complet et correspondant à l'épreuve à laquelle il se présente.

Si vous repérez ce qui vous semble être une erreur d'énoncé, vous devez le signaler très lisiblement sur votre copie, en proposer la correction et poursuivre l'épreuve en conséquence. De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, vous devez la (ou les) mentionner explicitement.

NB : Conformément au principe d'anonymat, votre copie ne doit comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé consiste notamment en la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de la signer ou de l'identifier. Le fait de rendre une copie blanche est éliminatoire.

Tournez la page S.V.P.

A

INFORMATION AUX CANDIDATS

Vous trouverez ci-après les codes nécessaires vous permettant de compléter les rubriques figurant en en-tête de votre copie.

Ces codes doivent être reportés sur chacune des copies que vous remettrez.

▪ **Concours externe du CAPES de l'enseignement public :**

Concours	Section/option	Epreuve	Matière
E B E	0 4 4 0 E	1 0 3	9 3 4 9

▪ **Concours externe du CAFEP/CAPES de l'enseignement privé :**

Concours	Section/option	Epreuve	Matière
E B F	0 4 4 0 E	1 0 3	9 3 4 9

Durée : 6 heures

Coefficient 2

Vous développerez, en français, un projet de séquence d'enseignement de la langue basque selon le contexte et les consignes détaillés ci-dessous :

Contexte :

Thème : « L'imaginaire »

Classe : collège, 6ème.

Conditions d'enseignement : section bilingue

Niveau attendu à la fin du cycle 3 : niveau A1 dans les cinq activités langagières et A2 dans plusieurs activités langagières.

Consignes :

1. Proposez une analyse critique de chacun des documents constituant le dossier.
2. Sélectionnez cinq documents dont obligatoirement les documents 1 et 5. Mettez en relation ces cinq documents et précisez leur intérêt pour la séquence.
3. Exposez les objectifs communicationnels, linguistiques, culturels, éducatifs de la séquence. Précisez l'exploitation de chacun des cinq documents conservés au sein d'une ou plusieurs séances.
4. Décrivez et analysez les faits de langue soulignés dans les documents 1 et 5, puis explicitez leur mise en œuvre au sein de la séquence d'enseignement envisagée.

Liste des documents constituant le dossier :

- Document 1 : Jules Moulier *Oxobi*, « Belea eta axeria ». In *Alegiak*. 1926.
- Document 2 : Wentworth Webster, « Eskoliar gaztea ». In *Euskal ipuinak*. 1867.
- Document 3 : Pako Eizagirre, « Anbotoko sorgina ». Audio-liburua <https://vimeo.com/475363154>
- Document 4 : Jean Barbier, « Laustaneko jauregia ». In *Ixtorio mixterio*. 1929.
- Document 5 : Jean Elizalde *Zerbitzari*, « Uhaldeko harrobiko laminak ». In *Saltsa-Maltsa* eskuizkribua. 1952-1957.
- Document 6 : Wentworth Webster, « Munstroa ». In *Euskal ipuinak*. 1867.
- Document 7 : Eneko Zuloaga & al., *Euskara* eskuliburua, Lehen Hezkuntza 6. Erein. 2021.
- Document 8 : Document iconographique : *Laminak, zubi egile*. Jean-Claude Pertuzé.
- Document 9 : Document iconographique. Pablo Tillac, *Légendes basques*, 1931.
- Document 10 : Document iconographique. Affiche du film *Irati*. Paul Urkijo. 2022.

Document 1

Belea eta axeria

Behin bazen bele bat:
bele bat beltza,
Pika **bezain** ohoina,
bainan zozoa!

Hartu zuen gasna bat,
gasna bat gaitza,
ardi esnez egina,
bainan gozoa!

Zurxuri baten punttan,
punttaren punttan,
gure belea zagon
nola gasna jan!

Axeri bat ttapattan,
ttapa tta pattan,
zurxurira jin zaion,
gosea tripan!

« Egun on, bele jauna,
oi zure soina!
Kanta hain eder balitz,
zinez dautzut hitz:

Ez litake xoririk,
ez, alafede,
ederrez joan lironik,
zuri, jaun bele! »

Bele jaunak orduan,
ordu berean,
mokoa du ireki...
Gasna erori!

Axeriak ttapattan,
ttapa tta pattan,
berea ez du hetsi.
Gasna irentsi!

Aho leun, muttur luz,
zenbat axeri
bele gaizoen kostuz
direnak bizi!!

Jules Moulier, Oxobi, Alegiak, 1926.

Document 2

Eskoliar gaztea

Behin batez baziren jaun andre batzu. Bazuten seme bat eta aita zuen untzietako kapitaina eta seme hura bethi egortzen zuen bere amak eskola hartzerat. Aita arribatzen zenian galdetzen zion bere semiari eia hainitz ikasi zuen eskolan. Amak errepusta:

— Ez gauza handirik.

Eta oraino bere aita partitzen da untzietan. Bigarren aldian ethorri zenian:

— Ene haurra, zer ikhasi duzu eskolan?

Haurrak jeus errepustarik. Bere amari galdetzen dio ez duen fitsik ikhasten. Kapitaina badoha haren nausiari galdetzerat eia haren semeak ez zuen jeus ikhasten. Ihardensten dio:

— Fitsik ez dut posible horri buruan sarraraztea.

Eta arribatzen da seme hura. Bere aita kusian galdez eia zer ikhasi duen eskolan:

— Hori, aita: xori kanta.

— A ene semea, xori kanta! Xori kanta! Zato, zato enekin untzian.

Eta ereman zuen. Bidian bazohazilarik heldu zaiote untziaren muturrerat xori bat kantuz ttirittitti.

— Ene semea, zato ja, zato ja, kapitain eskola hartzeko partez ikhasi baituzu xori kanta, orai badakizu horrek zer kantatzen duen.

— Bai aita, orai zure azpiko naizela, bainan oraino zu izanen zarela ene azpiko.

Zer iten du kapitain harek? Hartzen du barrika bat, khentzen dio burua eta ematen du bere semea haren barnian. Barrika tapatu eta botatzen du urerat eta tirain kolpe batek botatu zuen itsaso bazter baterat. Errege bat gerthatzen da itsaso hegian eta atzematen du barrika bat. Badoha gizon batzuen bilha. Hasten dire hautsi nahiz, eta mutiko harek barnetik:

— Pulliki! Pulliki ee! Jende biziak badire barne huntan.

Bere barrika idekitzen dute eta mutiko hura handik atheratzen da. Errege harek erematen du bere etxerat eta esposatu zen errege haren alabarekin. Eta egun batez, mutiko haren aita kapitainaren untzia hartzen du haize borthitz batek. Kapitain hura orduan tirain korte batek botatu zuen itsaso bazterrerat. Badoha errege haren etxerat eta ikhusten du bere semea. Semeak aita ezagutu zuen kusian, bainan aita bere semea ez zuen batere ezagutu. Bere semearen mutil zagoen. Egun batez erraten dio:

— Ezagutzen nauzu, ni nor naizen?

— Ez, jauna!

— Ni naiz zure seme hulako hura, halako orduan urerat barrikan botatu ninduzuna.

Eta aita-semeak elgarrekin bizi izatu ziren.

Wentworth Webster, *Euskal ipuinak*, 1867.

Document 3

Anbotoko sorgina

Behin batean, neska gazte bat iturrira joan zen ur freskoa hartzera. Halako batean, iturriaren atzetik emakume bat ateratzen zen. Emakumea oso itsusia zen: sudur luzea zuen, buruan kapela eta eskuan erratza.

Neskak beldurtuta galdetu zion:

— Nor zara zu? Zer nahi duzu?

— Ni Anbotoko sorgina naiz -erantzun zion- eta zu eramatera etorri naiz.

Orduan, neska harrapatu, hanka artean erratza ipini eta hegaz joan ziren biak.

Berehalaxe iritsi ziren haizulora. Han dena ilun-ilun zegoen eta neska beldurtuta negarrez hasi zen.

Baina egun batzuk pasa ta gero, pozik zegoen: sorginak soineko polit bat eman zion eta jantzi zuen.

Ispilu bat hartu eta begiratu zuen: zein aurpegi polita! Janaria ere nahi zuen guztia ematen zion. Baina oraindik sekreto handi bat zuen neskarentzat. Egun batean, belarrez jarabea egiten irakatsi zion. Beste egun batean sorginak esan zion neskari:

— Gaur gurasoen etxera joango zara.

Baina neskak erantzun zion:

— Ez, ez dut nahi; pozik nago hemen.

Belarrak hartu eta jarabea prestatu zuten etxera eramateko.

Etxera joan zen eta etxean aita, ama eta amona bakarrik; musu bana eman, eta aitona? Non dago aitona?

Aitona ohean zegoen gaixorik. Orduan, ateratzen zuten sorginaren jarabea eta aitona edan zuten. Berehala sendatu zen. Gero, kontatu zuten sorginarekin egon zela eta bere laguna zela. Orain denak daude pozik etxean: neska etorri da eta aitona ere sendatu da.

Pako Eizagirre,
Audio-liburua <https://vimeo.com/475363154>

Document 4

Laustaneko jauregia

Orai duela aspaldi-aspaldi, Laustaneko Jaunak, bere jauregia txarregi kausiturik, jauregi berri bat egin zezoten galdatu omen zioten lamineri.

Laminek baietz, gogotik eginen zutela, eta gauerdiz geroztikako lehen oilar kantua gabe oraino, baldin eta Jaunak bere arima emaiten bazioten saritzat. Eta Laustaneko Jaunak baietz hitz eman zioten.

Laminek gau hartan berean hasi zuten beren lana, eta Arradoiko harri eder gorri batzu pullikixko lanthurik, harri hek batek bertzeari, bixi-bixia emaiten zituzten, ahapetik elgarri erranez: «—To, Gillen! —Harzak, Gillen! —Emak, Gilen!». Eta lana bazoan, bazoan karraskan.

Laustaneko jauna oilategiko zurubi kaskotik lamineri beha zagon, halako puska ilhun zerbait eskuan.

Hor, laminek eskuetan hartu zuten azken harria: «—To, Gillen! —Harzak, Gillen! —Azkena duk, Gillen!».

Ordu berean, Laustaneko jaunak ixtupa mustuka bati su emanik, argi handi bat eraiki zen bet-betan, oilategiaren aintzinean, eta oilar gazte bat, iziturik, ustez eta iguzkia aintzindu zitzaion egun hartan, kukurukuka eta hegalez zaflaka eman zen.

Azken laminak jadanik eskuetan zuen azken harria firrindilaka arthiki zuen Ur Handiko osinera, marraka samin batean: «Madarikatu oilarra!» eta bere lagunekin suntsitu zen bera osinean.

Harri hura nehork egundaino ezin athera du osinetik; han da bethi ur zola-zolan, laminek aztaparrez daukatela, eta Laustaneko jauregiak harri bat eskas izan du bethiko denboretan.

Jean Barbier, *Ixtorio mixterio*, 1929.

Document 5

Uhaldeko harrobiko laminak

Harritzeko izanen zen Azkaineko zoko-mokoetan ez baginu lamina istoriorik kausitu. Bat erran dezagun, polita delakotz. Uhaldeko harrubian denbora batez baziren laminak. Gau guzietz tximiniari behera Uhaldeko sukalderat sartzen ziren eta han esne ontzi guziak husten. Ez zezaketen buru Uhaldeko nagusi gaixoei. Behin etxekoandreak bere baitan eginik josteta horrek aski iraun zuela, oro oherat igorri zituen hamar orenetako eta bera sukaldean gelditu. Berea gogoan, zartagin bat eman zuen suan olio betea. Gauerdi zen lehen lamina tximiniari behera jautsi zelarik. Lamina ibili zen jo eskuin, jo ezker, leihotik mahairat, mahaitik pegartegirat, baina nehon deusik ezin atzemanenez hurbildu zitzaion azkenean etxekoandreak:

— Zer erretzen duzu zartagin horretan atsotto?

— Neronek nire burua, lamintto.

— Zer?

— Neronek nire burua. Hurbil zaitez gehixeago ikusteko!

Eta hainbertzenarekin, laminari ohartzeko astirik utzi gabe, olio zartagina besainka igorri zion bi begien erdirat. Pentsa laminaren garrasiak! Etxe guzia iratzarrarazi zuten! Erran gabe doa lekuak atx-atxo hustu zituela laminak eta bi jauziz han zela harrubian bere lagunak erdian!...

— Nork ezarri zaitu planta horretan, lagunntto?

— Neronek nire burua.

Eta ez zioten lagunak bertzerik ateratu dohakabeari, marruma ikaragarri batzuk salbu. Egia usnatu zuten halere eta biharamun arratsean mendekatzea deliberatu. Uhaldeko etxekoandreak ez zioten denborarik utzi: herriko erretorea deitu zuen eta inguruetako zilo guziak benedikarazi. Otoitzek hil ote zituzten laminak, edo urrundu? Ez dakite azkaindar zaharrenek. Menturaz Arraioko lamina-ziloetarat joan ziren eta han kokatu: Uhaldean ez da beti geroztik bat bakarra agertu...

Jean Elizalde Zerbitzari, *Saltsa-Maltsa* eskuizkribua, 1952-1957.

Document 6

Munstroa

Behin batez bazen errege bat. Bazituen hiru alaba. Gaztena zuen arras andre gazte pulita, eta bi handienak ziren arras itsusiak eta beren buruaz arras hartuak. Egun batez errege harek deliberatzen du gatia pidaia handi baten egiterat eta bere alabei galdetzen diote:

— Zer present nahi duzue nik ekhartzia?

Eta bi alaba zaharrenek hautatzen dute tualeta posible zuen bezain ederra. Eta gaztenak:

— Nik aita, ez dautzut bertzerik galdetzen buketa bat baizik.

Eta erraten dio:

— Zer kolore?

Erraten dio:

— Orai, huna, negua da, eta ez dut posible buketa ederrik atzematea.

Eta errege hori partitzen da.

Etixerat heldu delarik atzematen du xato eder bat, eta baratze eder bat aintzinean eta sartzen da han. Hartzen du buketa eder bat eta agertzen dio terriblezko mustro itsusi bat eta erraten dio:

— Ene baratzetik hartu duzu buketa hori!

Eta errege hori arras tristatzen da. Eta erraten dio mustro harek:

— Zure alaba, urtetegun egin orduko ekharri beharko duzu hunat edo bertzela zerbeit malur arribatuko da zure etxian.

Partitzen da etxerat eta bere buketa ematen dio bere alabari. Bainan errege hori egunetik egunerat tristatzen hari zen eta egun batez galdetzen dio alaba harek:

— Aita, zer duzu hola tristatzeko?

Eta erreputa ematen dio:

— Baratze batetik hartua nuen zuri emanikako buketa hura eta orduan mustro batek galdetu ninduen zu harat eremateko.

Eta erresponditzen dio:

— Ba, aita. Hori baizik ez baduzu, ez zaitela xangrina. Gogotik ganen naiz.

Eta hori jakindu zutenean bi alaba zaharrenak alegeratzen dire eta kontentatzen, uste baitzuten mustro harrek janen zuela andre gazte hura. Ezin ikhus zezaketen zeren hek baino hainitz pulitago baitzen. Eta alaba gaztenarekin badoa aita. Eta arribatzen die xato hartan. Eta atzematen dute terriblezko bazkari handi bat prest eta nihor ez etxe hartan.

Eta aita partitzen da, bainan ungi bazkaldu ta, aski tristerik, bere alaba han utzirik. Eta andre gazte hura etxe hartan gelditu zen. Arratsean ez zuen nihor ikhusi. Eta badoa oherat.

Gero heldu zaio bere mustroa; arras izitzen da. Eta bethi arratsetan agertzen zitzaion, bainan egun guziez eta bethi, lanak inak zituen, beti jateko prest, baina hala izitzen zen.

Azkenean baratxe-baratxe hartu zuen eta maitatu eta egun batez huts iten dio eta arras xangrindua egotu zen bizpahirur laur gau, egun bat ere ez ikusi gabe. Ordenariozki gabaz agertzen zitzaion eta nola maitatua baitzuen, arras penetan zen. Eta egun batez agertzen zaio jaun gazte bat superra, eta andre gazte hura estonitzen da. Eta jaun gazte harek erraten dio:

— Ni naiz hulako erregeren semea punimendu batez mustro gelditua emaztegei bat atzeman arte. Orai zu baitzaitut, biak behar gare ezkondu.

Eta biak ezkondu ziren eta xato hartan bizi izatu ziren eta ongi bizi baziren, ongi hil ziren.

Wentworth Webster, *Euskal ipuinak*, 1867.

Document 7

"Behin bazen...", "Aspaldi-aspaldian...", "Landareareak eta animaliak mintzo ziren garaian..."
"Saski honetan zazpi artaburu gelditzen badira, etxe batean baziren zazpi anaia..." eta horien antzeko formulen atzetik, istorioak eta kontakizunak datoz: zaharrak, berriak zein eraberituak. Kontakizunen amaieran, berriz, esapide hauek erabili ohi dira, besteak beste: "Eta hala izan bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Derioko plazan", "Haiek ongi bizi?, Gu hobeki", "Geroztikako berririk ez dakit nik...", "Eta egia bada, sakelean sar, eta gezurra bada, kontuan ez har".

1- Baziren behin...

Zer esango zenukete pertsonaia hauei buruz? Nolakoak dira? Aipatu hiru ezaugarri fisiko, izaerari dagozkion beste hiru eta pertsonaia bakoitzak iradokitzen dituen hiru balore.



2- Munduan asko legez, artaburuak oskolez...

Pentsatu telebistan ikusten dituzuen telesailetan. Ba al dago aurreko ariketan deskribatutako ezaugarriak dituen pertsonaiarik? Nolakoak izan ohi dira pertsonaia nagusiak? Eta haien gurasoak? Pentsa ezazue heroi batengan: animalia, neska, mutila, gaztea, adinekoa... zer da?

Iturria: *Euskara* eskuliburua, Lehen Hezkuntza 6. Erein. Zuloaga & al. 2021.

Document 8



Laminak, zubi egile. Jean-Claude Pertuzé.

Document 9



Jean Barbier & Pablo Tillac, *Légendes basques*, 1931.

Document 10



***Irati* filmaren afixa. Paul Urkijo. 2022.**